

1 BIZKAIA

Aldabideko ur-jauzia



Ingurumen-garrantzia

Aldabideko ingurumariak balio handiko habitat eta ekosistemak ditu, baina hauskorak oso. Euri-urek karaharrien zirrikituetatik sartuta, haitzulo eta leize labirinto bat osatu dute.

Fauna eta flora espezieak egokitu behar izan dute Itxinan haitzetara. Izan ere,

zoruan, harkaitzetan eta zuhaitzetan ehun eta hirurogeita hamabost baino espezie gehiago bizi dira. Pagadian ederki bertakotu dira arrabioa (*Salamandra salamandra*) eta baso-igel gorria (*Rana temporaria*). Haitzartean ez da arraroa horma-

sugandilla (*Podarcis muralis*) eta zenbait hegazti, hala nola sai zuria (*Neophron percnopterus*), belatz gorria (*Falco tinnunculus*) eta belatxinga mokogorria (*Pyrrhocorax graculus*). Ugaztunen arten aipatzekoak dira saguzarrak (*Chiroptera*).

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 3,9 km

🕒 Ordu 1 eta 45 min | 🚶



Udalerria:

Orozko

Hurbileko herria:

Urigoiti



Ibaia:

Aldabide



9
MIDE

Arrisku faktore bat baino gehiago dago. Iturburua gaindituta pistara heltzeko kontu handia izan behar da



779 m



320 m



490 m



318 m



Aldabideko ur-jauzia



Non dagoen eta nola heldu

Aldabideko ur-jauzia Bizkaiko Lurralde Historikoaren hego-ekialdeko koadrantean dago, Arratia Nerbioi eskualdean, Orozko udalerrriaren Urigoiti auzoaren lurretan.

Ibilbidea Ibarratik hasiko dugu, Arratia eta Orozko Bikotx mendatearen bidez lotzen duen BI-3513 errepidetik.

Hiribarnea igarota, hormigoizko pista bat hartuko dugu Gorbeia Parke Naturalaren informazio panela duen aparkaleku-eremu batera (Karabiondo eta Elezkin).

Aparkaleku-eremutik hasita, Itxina karst egitura erraldoia ikusiko dugu urrutira. Pistatik hasita berrehun eta berrogeita hamar bat metro egin eta gero, Urgoitiko urtegia helduko gara.

Alanbre-hesi bat gainditu behar dugu egurrezko eskailera baten bidez, eta ehun bat metroren ondoren eskuinetara jotzen duen lehen pista hartuko dugu. Aurrerago, beste bidebanatze batean ezkerreko bidexka hartuko dugu. Handik aurrera beste alanbre-hesi bat pasa, eta zazpiehun bat metro egingo dugu aurrera.

Aldapa pike bat igo eta muinoaren goiko aldea hartuta Aldabide iturburuan bertan izango gara.

Handik aurrera, bide beretik jarraituko dugu iturburua geure eskuinetara utzita, eta igotzen jarraituko dugu pista bat hartu arte. Berak eramango gaitu berriro urtegia.

Edozein urtarotan egin daiteke ibilaldia, baina euri-sasoian eta elur urtzean izango dugu ur jauziaren ikuspeirik zoragarriena.

Deskargatu
ibilbidea:



KML




GPX

Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:



Wikiloc



Aldabideko ur-jauzia



Aldabideko ur-jauzia

